

GURUTZEKO JOAN DONEAREN KRISTOA

Aurkikuntza harrigarria pintura-artearen historian

Gurutzeko Joan donea ezaguna da mundu osoan literaturaren esparruan sortu den poetarik garaienetakoa gisa, baina, pintore edo irudigile bezala ia guztiz ezezaguna da nahiz eta jarraian azaltzen den artikulua adieraziko digun bezala, pinturaren artearen historian toki berezia merezi izan.

Jo dezagun historian atzera: Avilan gaude 1572-1576 urteetan, hogeitamar urte edo gehiago zituelarik, Kristo gurutzatua ikusi zuen Jonek eta, hunkiturik, luma hartu eta paper txiki batetan marraztu zuen berehala.

Hauexek dira jatorrizko irudiaren dimentsioak: gurutzearen luzera 5,7 zentimetrotakoa da, besoetakoa 4,7 zm. eta biek 3 mm. tako zabalera dute; Jesusen oinetatik ezkerreko besoaren ertzearaino, lerro zuzenean, 2 zentimetro dago eta eskuinera 6 zm.

Jarraian datorren René Huyghe-ren artikulua argitaratua izan zen eta badituz bi orrialde horien (112-113) fotokopia, bi zutabetan; artikulua gutxi esagutua da, eta ez da bereziki agertzen miatu ditudan bibliografia errepertorio famatuetan. Liburu onetan agertu zan: BRUNO DE J.M., *L'Espagne mystique...* Paris 1946.

Honela izenpetzen du artikulugileak: «René Huyghe. Conservateur en Chef des peintures au Musée du Louvre».

Ikusten denez, pintura kritiko jakintsua dugu.

Julen Urkiza